# DONEJAKUE BIDEA BIZIKLETAZ
## EL CAMINO DE SANTIAGO EN BICICLETA




## GOMENDIOAK
## RECOMENDACIONES

Euskadin, Done Jakue Bidea oinez egiteko seinalizatuta dago, UNESCOk Munduko Ondare izendatutako ibilbide batetik. Gida honetan, zakuto eta guzti mendi-bizikletaz egiteko zailenak izan daitezkeen zatiak saihesteko hainbat aukera proposatuko dizkizugu. Kontuan izan zenbateko sasoi-puntua duzun zein bide egingo duzun erabakitzeko garaian.

Done Jakue bidea ez dago bizikletaz egiteko seinalizatuta. Lor ezazu GPS bat edo zure smartphonean ibilbidea markatuko dizun app bat.

Ez ahaztu kaskoa, arropa islatzailea, giltzarrapo on bat, eguzkitarako betaurrekoak, eguzkitarako babesa eta bizikletan oinarrizko konponketak egiteko beharrezkoa den materiala.

Kontu handiz ibili errepideko zatietan.

Oinezko erromesengana hurbiltzen zarenean, mantsotu abiadura haien ondotik igarotzean.

Kontuan izan zenbait aterpetxetan oinezko erromesek lehentasuna izan dezaketela.

*El Camino de Santiago por Euskadi está señalizado para su realización a pie por un trazado que ha sido nombrado Patrimonio Mundial por la UNESCO. En esta guía te proponemos diversas opciones para evitar los tramos del camino que pueden resultar más complicados para una bicicleta de montaña con alforjas. Valora tu forma física a la hora de decidir el camino que vas a realizar.*

*El Camino de Santiago para bicicletas no está señalizado como tal. Hazte con un GPS o una app. con el trazado a realizar en tu smartphone.*

*No olvides llevar casco, ropa reflectante, un buen candado, gafas de sol, protección solar y material necesario para realizar las reparaciones básicas.*

*Extrema la precaución en los tramos de carretera.*

*Cuando te acerques a peregrinos a pie, reduce la velocidad al pasar a su lado.*

*Ten en cuenta que en algunos albergues los peregrinos a pie pueden tener preferencia.*

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

Bizikletaz egiteko Barnealdeko Bidearen bigarren etapa honetan, Oriaren bailarari jarraituko diogu Hegoaldetik igarobidea ixten digun Aizkorri-Aratz mendi-puskarekin topo egin arte. Oinezkoak San Adrianeko tuneletik igaroko dira mendilerroa gurutzatzeko, eta txirrindulariok Otsaurtetik joanez saihestuko dugu. Behin mendia zeharkatu ondoren, egunaren bigarren zatia luzea baina erosoa izango da, desnibelik gabekoa, partzela-bideetan barrena lautada gurutzatuz eta Gasteiz zaharrera iritsiz.

*En esta segunda etapa del Camino del Interior en bicicleta, continuaremos por el valle del Oria hasta toparnos con la mole de Aizkorri-Aratz que nos cierra el paso por el Sur. Los caminantes se aventurarán por el túnel de San Adrián para franquear la sierra mientras que los ciclistas la evitaremos por Otsaurte. Una vez rodeada la montaña, nos depara una segunda parte de la jornada larga pero cómoda, sin desniveles y discurriendo por parcelarias a lo largo de la llanada hasta la vieja Gasteiz.*

KMZ

GPX







## Beasain > Vitoria-Gasteiz

| | |
|---|---|
| Distantzia: / *Distancia:* | 80,4 km |
| Desnibela: / *Desnivel:* | 825 m |
| Denbora, gutxi gor.: / *Tiempo aprox.:* | 7h |
| Zailtasuna: / *Dificultad:* | Handia / *Alta* |

| | |
|---|---|
| Zolatutako bide-zorua: / *Firme pavimentado:* | 88 % |
| Zolatu gabeko bide-zorua: / *Firme no pavimentado:* | 12 % |
| Aldapa handieneko tarteak: / *Tramos de mayor pendiente:* | Zegama-Otsaurte |







## Bidezatia / *Tramo*
## BEASAIN > ERDOÑANA/ORDOÑANA

km

**0** **BEASAIN.** Beasaingo Igartzako ingurunetik aterako gara, eta N-1 errepidearen gaineko pasabidera bideratuko gara. (Une batez bizikleta soinean hartu beharko dugu). Beste aldean gaudenean, industria-nabe baten alboan, oinezkoentzako Bidea Olaberriara igotzen da eta guk N-1 errepidearekiko paraleloki jarraituko dugu. Ihurre auzoa igaro ondoren Idiazabalerantz, poligono- eta pabiloi-eremu batean barrena jarraituko dugu GI-2367 errepidera iritsi arte, eta errepide horrek Segurarantz doan bidegorrira bideratuko gaitu.

**6,5** **SEGURA.** Segurara iritsi aurretik, aipatututako bidegorria ez da erdi aroko hiribildu ederrean sartzen eta Mendebaldetik zeharkatzen du, eta bidegorria utzi gabe aurrerantz jarraituko dugu Zegamaraino.

**12** **ZEGAMA.** Zegaman oinezko erromesei agur esango diegu, eta San Adrianeko tunelerantz bideratuko dira, Barnealdeko Bidearen enblema nagusira. Bertarako igoera saihestuko dugu, bizikleta soinean hartu beharko genukeelako harriz betetako bideetan barrena, eta GI-2637 errepidea hartuko dugu. Etengabe gorantz eginez Otsaurteko bentaraino iritsiko gara.

**20** **OTSAURTE.** Bentan indarberritu ondoren, jaisten hasiko gara. GI-2637 errepideari jarraituko diogu, zeina NA-1001 errepide bihurtuko den Nafarroan sartzen garenean, eta Altsasurantz bideratuko gaitu. Herriaren sarreran biribilgune batera iristen garenean, tren-geltokiranzko seinaleei jarraitu behar diegu.

**28,5** **ALTSASU.** Trenbidearen azpitik igaro ondoren gure ezkerraldean Guardia Zibilaren postua ikusiko dugu. Ondoren auzo txiki bat gurutzatuko dugu, eta horren ondoren eskuinera doan bide bat hartuko dugu, Ziordiarantz eramango gaituena zementu-fabrika baten atzealdetik. Erreferentzia gisa kontuan izan behar da ez dela berriz igaro behar trenbidearen azpitik, eta haren paretik jarraitu behar dela distantzia handiago edo txikiagoan.

**35,5** **ZIORDIA.** Behin Ziordiako gune txikia gurutzatu ondoren, A-3012 errepidearekin bat egingo dugu. A-3020 errepidearekiko bidegurutzera iristerakoan, gure eskuinaldean Araia geratuko da eta aurrerantz jarraituko dugu Zalduondora iritsiz eta Done Jakue Bide ofizialaren seinaleekin eta San Adrianetik jaisten diren oinezko erromesekin topo eginez.

**45,7** **ZALDUONDO.** Zalduondotik A-3018 errepideari jarraituko diogu hego-mendebalderantz. Erdoñako etxeetaraino iritsi aurretik, gure eskuinaldean San Millan baseliza ikusiko dugu.

**48,8** **ERDOÑANA/ORDOÑANA**

km

**0** ***BEASAIN.*** *Salimos del complejo de Igartza en Beasain desde donde nos dirigiremos a la pasarela sobre la N-1. (Habrá que cargar con la bicicleta momentáneamente). Una vez al otro lado, al pie de una nave industrial, el Camino a pie asciende a Olaberria mientras que nosotros seguiremos de forma paralela a la N-1. Tras pasar sobre el barrio de Ihurre en dirección a Idiazabal, continuamos por una zona de polígonos y pabellones hasta alcanzar la GI-2367 que nos conducirá al carril bici que se dirige a Segura.*

**6,5** ***SEGURA.*** *Antes de alcanzar Segura, el citado carril bici evita su entrada en la hermosa villa medieval rodeándola por el Oeste y dirigiéndonos sin abandonar el asfalto rojo hasta Zegama.*

**12** ***ZEGAMA.*** *En Zegama nos despedimos de los peregrinos a pie que dirigirán sus pasos hacia el túnel de San Adrián, hito que constituye el emblema por excelencia del Camino del Interior. Evitaremos la penosa ascensión al mismo, que nos obligaría a cargar con la bicicleta por caminos empedrados, tomando la carretera GI-2637 que nos conducirá en ascenso continuado hasta la venta de Otsaurte.*

**20** ***OTSAURTE.*** *Tras retomar fuerzas en la venta comenzamos el descenso. Habrá que seguir la GI-2637 que pasa a ser NA-1001 al entrar en Navarra y que conducirá nuestras ruedas hacia Altsasu. Al llegar a una rotonda a la entrada de la localidad deberemos seguir la señalización hacia la estación de tren.*

**28,5** ***ALTSASU.*** *Tras pasar bajo las vías veremos a nuestra izquierda el puesto de la Guardia Civil. Seguidamente atravesaremos un pequeño barrio tras el cual tomaremos un camino a la derecha que conduce a Ziordia por detrás de una cementera. Como referencia se ha de tener en cuenta que no hay que pasar de nuevo bajo las vías del tren, sino seguir paralelo a ellas a más o menos distancia.*

**35,5** ***ZIORDIA.*** *Una vez pasado el pequeño núcleo de Ziordia, enlazamos con la A-3012. Al llegar al cruce con la A-3020 quedará a nuestra derecha Araia y enfilaremos nuestra rueda delantera de frente para alcanzar Zalduondo y reencontrarnos con la señalización del Camino de Santiago oficial y los peregrinos a pie que bajan de San Adrián.*

**45,7** ***ZALDUONDO.*** *Desde Zalduondo se continúa por la A-3018 en dirección suroeste. Antes de alcanzar las casas de Ordoñana a nuestra derecha queda la ermita de San Millán.*

**48,8** ***ERDOÑANA/ORDOÑANA***

DONE JAKUE BIDEA EUSKAL HERRIA

# KONTUAN HARTU BEHARREKOAK
## A TENER EN CUENTA

- Etapa luze honek hainbat aukera eskaintzen ditu laburragoa izan dadin, eta gaua Agurainen edo Dulantzin pasa daiteke, erromesentzako aterpetxeak eta zerbitzu guztiak dituztelako.

- *Esta larga etapa ofrece diversas opciones para acortarla pudiendo pernoctar en Salvatierra-Agurain o Alegria-Dulantzi que disponen de albergues para peregrinos y todos los servicios.*

- Herrigune txikietara edo animaliak dituzten finketara hurbiltzen garenean ez da bazter utzi behar txakurren bat lotu gabe egotea, eta beraz erne ibiltzea komeni da. Ezkerekotxaren kasua da, non mastin batzuek herriko irteeran erromesen bati ezusteko txikiren bat eman izan dioten.

- *Cuando nos acercamos a pequeños núcleos de población o a fincas con animales no hay que descartar que haya algún perro suelto, por lo que conviene andar atento. Es el caso de Ezkerekotxa en el que unos mastines han dado algún pequeño susto a algún peregrino a la salida del pueblo.*

- Gasteizko sarreran Bide ofizialak trenbidearen azpitik eta ibaiaren alboan doan tarte bat egiten du, eta oso lokaztuta egon ohi da. Hori saihestu daiteke aurrerantz jarraituz Arkaian, Arabako hiriburura Las Neveras gainetik iritsiz.

- *A La entrada en Vitoria-Gasteiz, el Camino oficial discurre por un tramo bajo las vías del tren junto al río que suele encontrarse muy embarrado. Es posible evitarlo continuando de frente en Arkaia para alcanzar la capital alavesa por el Alto de Las Neveras.*

- Gasteizen hainbat murrizketa daude bizikletentzat oinezkoentzako hainbat gunetan. Hirigunean zaudenean, mapan egiten dugun proposamenari jarraitu, ahal duzun neurrian. Abiadura moteldu eta oinezkoak errespetatu.

- *En Vitoria-Gasteiz existen una serie de restricciones para el tránsito por bicicletas en algunas zonas peatonales. Sigue en la medida de lo posible la propuesta que hacemos en el mapa dentro del casco urbano. Disminuye la velocidad y respeta a los peatones.*

# TELEFONO INTERESGARRIAK
## TELÉFONOS DE INTERÉS

| | |
|---|---|
| Turismo Bulegoak<br>*Oficinas de Turismo* | |
| Idiazabal (Gazta Museoa) | 943 188 203 |
| Segura (Ardixarra) | 943 801 749 |
| Zerain | 943 801 505 |
| Arabako Lautada/Llanada Alavesa (Agurain/Salvatierra) | 945 302 931 |
| Vitoria-Gasteiz | 945 161 598 / 945 161 599 |
| Beasaingo Informazio Puntua (Igartza)<br>*Punto de Información de Beasain (Igartza)* | 943 087 798 |
| Anduetza Parketxea (Aizkorri-Aratz natura parkearen zentroa)<br>*Parketxe Anduetza (Centro del parque natural Aizkorri-Aratz)* | 943 802 187 |
| Arabako Erromanikoa Interpretazio Zentroa (Estibaliz)<br>*Centro de Interpretación del Románico en Álava (Estibaliz)* | 656 718 115 |
| Zalduondoko etnografia-museoa (igandetan irekita)<br>*Museo etnográfico de Zalduondo (domingos abierto)* | 945 304 393 |
| Donejakue bideen lagunen elkartea (Gipuzkoa)<br>*Asociación de Amigos del Camino de Santiago (Gipuzkoa)* | 943 427 281 |
| Donejakue bideen lagunen elkartea (Araba)<br>*Asociación de Amigos del Camino de Santiago (Álava)* | 945 144 794<br>609 472 446 |
| Larrialdiak<br>*Emergencias* | 112 SOS DEIAK |






# EZ GERATU EZAGUTU GABE!
## ¡NO TE LO PIERDAS!



Lautadan hainbat bitxi daude, oinezko erromesentzako Bidetik kanpo geratu arren bizikletaz doazen erromesen eskura daudenak. Alaizako horma-pinturen edo Estibalizko Santutegiaren kasua da. Arte erromanikoa edo gotikoa atsegin baditzu, eska ezazu informazioa Aguraingo Turismo Bulegoan.

*En la Llanada hay diversas joyas que, si bien quedan fuera del Camino para peregrinos a pie, están al alcance de peregrinos sobre ruedas. Es el caso de las Pinturas murales de Alaiza o el Santuario de Estibaliz. Si eres aficionado a los artes románico y gótico, solicita información en la Oficina de Turismo en Salvatierra-Agurain.*



Bizikletentzako desbideratze-proposamenarekin beharbada San Adrianeko tunela bisitatzeko gogoarekin geratu gara, izan ere, UNESCOk Iparraldeko Done Jakue Bideekin batera Munduko Ondare deklaratu baitzuen. Bertara bizikletaz joan gaitezke Otsaurteko bentatik, baina bisita horren ondorioz, seguru aski, etapa proposatuta zegoen modua laburtu egin beharko dugu.

*Con la propuesta de desvío para bicicletas, es posible que nos hayamos quedado con ganas de visitar el túnel de San Adrián, declarado Patrimonio Mundial por la UNESCO junto con los Caminos de Santiago del Norte. Podremos acceder a él en bicicleta desde la venta de Otsaurte, aunque esta visita probablemente nos obligará a acortar la etapa tal como estaba propuesta.*

www.euskadituriismo.eus



Gasteizko Santa Maria katedral zaharrari egindako bisita interesgarriak, tenplu gotiko horrek izan dituen eraikuntza-fase guztiak azalduko dizkigu. Hainbat bisita gidatu eskaintzen dira.

*La interesante visita a la antigua catedral de Santa María de Vitoria-Gasteiz nos guiará por las diversas fases constructivas por las que ha pasado este templo gótico. Se ofrecen diversas visitas guiadas.*

# Bidezatia / *Tramo*
## ERDOÑANA/ORDOÑANA > VITORIA-GASTEIZ

km

**48,8** **ERDOÑANA/ORDOÑANA.** Errepidetik jarraituta, San Lazaro antzinako ospitaleak egingo digu Agurain herrirako ongietorria.

**52** **AGURAIN-SALVATIERRA.** Agurain aukera bikaina da geldialdi bat egiteko eta indarberritzeko, zerbitzu guztiak dituelako. Hirigunetik ateratzerakoan, biribilgunean eskuinerantz bira egingo dugu eta Foru kalean barrena jarraituko dugu Bide Ofizialaren jarraibideak kontuan izanik, Gazeo eta Ezkerokotxatik Dulantzi inguruaino.

**66,9** **ELBURGO/BURGELU.** Dulantzin sartu gabe, berehala Burgelu herri txikira iritsiko gara. Seinale ofizialei jarraituko diegu partzela-bideetan barrena, beste gune txiki batzuk gurutzatzeko, adibidez Villafranca eta Argandoña. Azken horren irteeran, A-132 errepidean barrena metro batzuk jarraitu beharko dugu eta berehala ezkerraldera desbideratuko gara Otazurako noranzkoan A-2130 errepidetik, eta ondoren eskuinalderantz joango gara Arkaiara, jadanik Gasteizko sarreran gaudela.

**80,5** **GASTEIZ**

km

**48,8** ***ERDOÑANA/ORDOÑANA.*** *Siguiendo por la carretera, el antiguo hospital de San Lázaro nos dará la bienvenida a la villa de Salvatierra-Agurain.*

**52** ***AGURAIN-SALVATIERRA.*** *Agurain es una excelente opción para hacer un alto y reponer fuerzas ya que dispone de todos los servicios. A la salida del casco urbano, en la rotonda giramos a la derecha y seguimos por la Calle Fueros siguiendo las indicaciones del Camino Oficial por Gazeo y Ezkerokotxa hasta los alrededores de Alegria-Dulantzi.*

**66,9** ***ELBURGO/BURGELU.*** *Sin entrar en Alegria-Dulantzi, enseguida alcanzamos el pequeño pueblo de El Burgo/Burgelu. Seguiremos la señalización oficial por parcelarias para pasar otros pequeños núcleos como Villafranca y Argandoña. A la salida de esta última, habrá que seguir unos metros por la A-132 para desviarse al poco a la izquierda dirección Otazu por la A-2130 y seguidamente a la derecha hacia Arkaia a las puertas ya de Vitoria-Gasteiz.*

**80,5** ***VITORIA-GASTEIZ***

